

I - JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA Y ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Diputación Foral de Álava

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuaren 126/2024 Foru Agindua, azaroaren 25ekoa. 2025eko ekitaldian irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea norgehiagoka araubidean

Arabako Foru Aldundiak Eskutik agiri markoa dauka lankidetzeta eta elkartasuneko politika publikorako. Agiri horren helburua da jardun esparru garbia ezartzea, 2030 Agenda Berrian eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarri diren nazioarteko egungo erronkei eta esparruei egokitua, eta esparru horri eranstea lankidetzako foru politika partaidetu, partekatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

Hurrengo urratsa Eskutik Mundurari ekitea izan da, lankidetzeta politika publiko desberdina (berritua, berritzailea, eguneratuta...) eraikitzeke erronkari erantzuten dion parte hartzeko prozesuari hain zuzen, elkarrekin lankidetzan jarduteko lan guene bat tinkotzeko.

Era honetan, foru lankidetzeta nazioartean arautzen duen programa esparrua bi hauek eratzen dute: Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda berriak eta Garapen Jasangarriaren Helburuek. Bi horiek 2015eko irailean onetsi ziren pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan gisa, eta plan horrek datozen urteetan abiarazi beharreko erabakiak eta ekintzak gidatuko ditu.

Bestalde, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Lege berriaren xedea da garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzeta politikaren araubide juridikoa ezartzea.

Lege horrek, II. kapituluaren (Garapen jasangarrirako lankidetzaren plangintza, tresnak eta modalitateak) III. atalean (Garapen jasangarrirako lankidetzaren ekintza publiko osagarriak), 11. artikuluan, garapen jasangarrirako hezkuntza eta herritartasun globala jorratzen ditu. Horren barruan sartzen dira hezkuntza, sentsibilizazio eta komunikazioko ekintzak, komunikabideen eta hezkuntza formalaren bidez, haur hezkuntzatik unibertsitate etapara arte, hezkuntza ez formalean eta informalean. Haren helburua da garapen jasangarriaren eta elkartasunaren dimentsio globalen gaineko informazioa, ezagutza kritikoa eta ulermena sustatzea, lankidetzeta deszentralizatuak haren sustapenean duen funtsezko rola bultzatuz, horretarako sortutako berezko araudiak errespetatuz. Era berean, garapen jasangarri globalerako konpromiso eraldatzailea, parte hartze soziala eta boluntariora sustatzen ditu, gizarte erakundeen eta GGKEen bidez.

Halaber, lege horrek hirugarren xedapen gehigarrian (Garapenerako nazioarteko lankidetzako dirulaguntzak eta laguntzak) xedatzen duenez, garapenerako nazioarteko lankidetzako dirulaguntzak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira, eta araudi horrek, izapideen eraginkortasuna eta sinplifikazioa bermatzeaz gain, arlo horretako lankidetzaren prozesu burokratikoak beren berezitasunetara egokitzeko beharrari helduko dio. Araudi hori arau bidez onetsiko da. Arau horiek oinarritzeko izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko izaera horretako arauak garatzen edo osatzen dituztenean.

Ildo horretan, legearen hitzaurreak berak adierazten du beharrezkoa dela hobekuntzak egitea arau esparruan, desburokratizazio handiagoaren eta baliabide tekniko eta giza baliabide gehiago jartzearen ildotik.

Bestalde, Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Euskal Lege berriak, zioen azalpenean, honako hau aurreratzen du: “Euskadin, lankidetzaren eta elkartasun-politikak gizartearen eraldatzeko hezkuntza sustatzen du, giza garapenean, bizitzaren jasangarritasunean, justizia globalean eta herrien arteko bizikidetzaren eragina izango duten balioen, jarreraren eta jardunbideen aldaketa bultzatzeko” eta “Gizartearen eraldatzeko hezkuntza funtsezkoa da nazioarteko lankidetzaren esparruari buruzko lege-hurbilketa orotan, eta ardatz nagusi izan behar du gizarte ekitatiboagoak, anitzagoak, konprometituagoak eta bidezkoagoak bilatzeko bultzada guztietan”.

Lege horren 1.2 artikulua honako hau ezartzen du: “euskal lankidetzaren eta elkartasunaren bultzatzea, eta honetaz dihardugu hori esatean: Euskadik, Hegoaldeko eragileekin aliantzan, giza garapenean eta bizitzaren jasangarritasunaren, justizia globalaren -bereziki, generoaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik- eta prozesu demokratikoen sakontzearen, bakearen eraikitzearen eta munduko herrien arteko bizikidetzaren esku jartzen dituen jardueren, gaitasun, baliabide eta balio solidarioen multzoa”.

Lehenengo artikulua horretan bertan, bosgarren apartatua, berriaz aipatzen da, berriz ere, gizartearen eraldatzeko hezkuntza (GEH), honako hau dioenean: “Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoak hauek sustatzen ditu, besteak beste: gizartearen eraldatzeko hezkuntza, garapen jasangarritasunaren politiken koherentzia, ezagutzaren sorrera eta komunikazioa; horien bidez, bizitzaren jasangarritasunean, justizia globalean eta herrien arteko bizikidetzaren eragina izango duten balioen, jarreraren eta jardunbideen aldaketa bultzatu nahi da”.

Laugarren artikuluan, helburuen artean, “Bereziki Hegoaldeko gizataldeetan txirotasuna eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko arazoak eraldatzeko ekarpena egitea eta giza garapena eta jasangarritasuna sustatzea...” helburuaz gain, honako borondate hauek ezartzen dira berriaz: “Elkartasunaren balioak sustatzea eta euskal gizartearen eta bere erakundearen mobilizazioa bultzatzea, aipatutako helburuak betetzeko prozesuan herritarren protagonismoa indartzeko; besteak beste, gizartearen eraldatzeko hezkuntzako prozesuen bidez” eta “Gizartearen zibilizazioaren entitateak –bai Euskadikoak, bai Hegoaldeko herrialde eta lurraldeetakoak– indartzea eta haiei laguntzea, elkarte-sarea sustatuz gizarte demokratiko, inklusibo, horizontal eta eraldatzaileen sinbolo gisa”.

Bestalde, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Lege berriak honako hau dio 14.4 artikuluan: “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren lankidetzaren eta elkartasun-jardueren zeharkakotasunez txertatu beharko dituzte klima-aldaketa eta bidezko energia-trantsizioa, ikuspegi ekosozialaz gain, ingurumen-erronka globalak kontuan hartuta, horien inpaktuak betez ere planetako lurralde pobretuei eragiten badie”.

Beste urrats batean, (H) ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEHE) euskal Estrategiak, 2017an onartuak, ezartzen du GEHE Garapenerako Hezkuntzaren zuzeneko oinarria delako. Garapenerako Hezkuntza azken hamarkada hauetan antolakunde eta erakunde publikoek bultzatu izan dute herritarrak kritikatuak eta munduan dagoen injustizia eta desberdintasunaren jakitun izatea eta gizabanakoengan eta taldeengan aldaketak sortzen dituzten berdintasun eta elkartasuneko jardunak sustatzeko.

(H) ABIAN 2030ek orientazio bat eta lortu beharreko aldaketak planteatzen ditu. Eragileek eta subjektuek beren ekarpenak egin ditzakete, bakoitzak bere dibertsitatekin. Horretarako, ez bairik gabe, gizartearen eta erakundearen konpromisoa behar da, estrategia hau gauzatzeko behar diren baliabideak ahalbidetzen dituen konpromisoa hain zuzen ere. Halaber, eragile bakoitzak bultzatzen dituen proposamen, politika, estrategia, ekintza eta tresnetan zehaztu beharko da estrategia.

Azken finean, (H) ABIAN 2030 GEHEko estrategia gida bat da Euskal Herriko erakunde publikoek, GGKEek eta bestelako antolakunde eta mugimendu batzuek hel diezaioten baterako ekarpenak egiteari gizarte aldaketan benetan laguntzen duten hezkuntza prozesuetara, giza eskubideak, berdintasuneko botere harremanak, tokikoaren eta mundukoaren arteko lotura eta Naturaren zaintza errealitatea izan daitezen mundu interdependente eta globalizatu honetan.

Era berean, garapen iraunkorra sustatzera bideratu behar da (bere hiru dimentsioetan: ekonomia, gizartea eta ingurumena). Garapen iraunkor horrek pertsona izan behar du helburu, genero ikuspegia ere barneratua izan behar du, giza eskubide guztiak errespetatu behar ditu, eta arreta berezia jarri behar die pertsonarik txiroenei eta kalteberenei.

Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Lege horrek hitzaurrean ezarritakoaren arabera, mundua, gaur egun, leku globalizatua goa eta interkonektatua da, baina baita ezegonkorragoa ere, arrisku partekatua handiagoak eta ekintza kolektiboaren premia handiagoa dituena. Egoera horretan, garapen jasangarria ez da hartu behar garapen txikieneko herrialdeetara mugatutako arazotzat, eta erronka global gisa planteatzen da, herritar guztiei dagokiena.

Krisi sistemikoaren egungo testuinguruak hezkuntza ekintza eraldatzaile bat eskatzen du, honako hauetan sakonduko duena: sistemaren interdependentziak, bidegabekeriaren eta desberdintasunaren egiturazko kausak, desberdintasunen eta borroken tokiko inpaktuak eta inpaktu globalak, eta borroka horietako eta erronka partekatuetako erantzukidetasuna, herritartasun globalaren ikuspegitik.

Hori guztia aplikatuz, Arabako Foru Aldundiak aurreikusten du bere diru baliabideetako batzuk gizarte eraldaketarako hezkuntzarako ekimen eta proiektuetan erabiltzea. Horren arabera garatzen dira eranskinean jasotako gizarte eraldaketarako hezkuntzako ekintzak egiteko laguntzak.

Goian aipatutako lankidetzari buruzko lege berrian jasotako arau esparruan, deialdiaren xedea dirulaguntzak ematea da, norgehiagoka bidez. Dirulaguntza horien helburua da elkarte sarea indartzen laguntzea eta genero ikuspegiaren gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuak babestea. Genero ikuspegia duten gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuek eta Eskutik 2022-2025 esparru dokumentuan lehenetsitako ikuspegiarako batzuei erantzuten dieten ekimenei jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Pentsamendu kritikoa sortzen duen hezkuntza, gizarteari, bizitzari eta inguruneari dagokienez pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituena, bizi diren gizartea eraldatu nahi duen herritartasun globala eratuz. Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren kontzeptio hori da (H) ABIAN 2030 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategian jaso dena, zeina Arabako Foru Aldundiak sinatu baitu.

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren proposamena aztertu da.

Hori guztia aintzat hartuta, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua naizen aldetik dauzkadan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2025ko ekitaldian irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea. Dirulaguntzak norgehiagoka araubidean emango dira; zenbatekoa: 145.000,00 euro.

Zenbateko hori, gehienez ere, deialdi honi esleitutako urteko zenbateko osoaren ehuneko 25 handitu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzak emateko ebazpenaren ondoren kreditu soberakinik badago. Dirulaguntza horiek irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei emango zaizkie norgehiagoka bidez 2025ko ekitaldian garapen bidean dauden herrialdeetan urteko lankidetzako ekintza puntualak finantzatzeko.

Bigarrena. Deialdi hori arautzen da Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorren arabera (Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretua, 2020ko uztailaren 27ko ALHAOn, 84. zenbakian, argitaratua), bai eta foru agindu honen eranskinean xedatutakoaren arabera ere, eta, halakorik ezean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren arabera eta legeria osagarri eta garapen legedi aplikagarriaren arabera ere, Garapen Jasangarrirako

Lankidetzari eta Elkartasun Globalari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Lege berrian aurreikusitakoaren aurka ez doan guztian. Hain zuzen, lege horren xedea da garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzaren politikaren araubide juridikoa ezartzea, eta xedapen indargabetzaille bakarrean indargabetu egiten ditu lege horretan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak eta 3/2024 legean, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarako eta Elkartasunerakoa.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2025ko ekitaldiko aurrekontu proiektuaren 25301. G/232252/48100265 "Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Proiektuen Deialdia" partidak babesten du. Partida horrek 145.000,00 euroko kreditua izango duela aurreikusten da. Beraz, dirulaguntza emateko, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza ebazteko unean.

Laugarrena. Organo eskudunak organo instruktorearen proposamena aztertuko du, eta bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete igaro baino lehen. Epealdi horretan berariazko ebazpenik eman ezean, entitate interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematen zaio foru agindu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Seigarrena. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzailerei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Zazpigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 25a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua
JONE BERRIOZABAL BÓVEDA

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria
JOANA DEL HOYO FERNÁNDEZ

ERANSKINA

DEIALDIA, IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ELKARTEEI ETA ERAKUNDEEI NORGEHIAGOKA BIDEZ DIRULAGUNTZAK EMATEKO, GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO PROIEKTUAK GARATZEKO 2025EAN

Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Lege berriaren xedea da garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzaren politikaren araubide juridikoa ezartzea.

Lege horrek hirugarren xedapen gehigarrian (Garapenerako nazioarteko lankidetzako dirulaguntzak eta laguntzak) xedatzen duenez, garapenerako nazioarteko lankidetzako dirulaguntzak beren araudi espezifikokoaren arabera arautuko dira, eta araudi horrek, izapideen eraginkortasuna eta sinplifikazioa bermatzeaz gain, arlo horretako lankidetzaren prozesu burokratikoak beren berezitasunetara egokitzeko beharri helduko dio. Araudi hori arau bidez onetsiko da. Arau horiek oinarritzakoak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko izaera horretako arauak garatzen edo osatzen dituztenean.

Ildo horretan, legearen hitzaurreak berak adierazten du beharrezkoa dela hobekuntzak egitea arau esparruan, desburokratizazio handiagoaren eta baliabide tekniko eta giza baliabide gehiago jartzearen ildotik.

Besteak beste, xedapen gehigarri horrek salbuesten du, nolahi ere, berandutze interesa eskatzea Estatuko, autonomia erkidegoko edo tokiko edozein administrazio publikok emandako nazioarteko lankidetzaren esparruko dirulaguntzei eta laguntzei aplikatu ez zaizkien itzulketetarako eta soberakinetarako.

Bestalde, Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Euskal Lege berriak, zioen azalpenean, honako hau aurreratzen du: "Euskadin, lankidetzaren eta elkartasun-politikak gizartearen eraldatzeko hezkuntza sustatzen du, giza garapenean, bizitzaren jasangarritasunean, justizia globalean eta herrien arteko bizikidetzaren eragina izango duten balioen, jarreraren eta jardunbideen aldaketa bultzatzeko" eta "Gizartearen eraldatzeko hezkuntza funtsezkoa da nazioarteko lankidetzaren esparruari buruzko lege-hurbilketa orotan, eta ardatz nagusi izan behar du gizarte ekitatiboagoak, anitzagoak, konprometituagoak eta bidezkoagoak bilatzeko bultzada guztietan".

Lege horren 1.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Euskal lankidetzaren eta elkartasunaren bultzatzea, eta honetaz dihardugu hori esatean: Euskadik, Hegoaldeko eragileekin aliantzan, giza garapenean eta bizitzaren jasangarritasunaren, justizia globalaren -bereziki, generoaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik- eta prozesu demokratikoen sakontzearen, bakearen eraikuntzaren eta munduko herrien arteko bizikidetzaren esku jartzen dituen jardueraren, gaitasun, baliabide eta balio solidarioen multzoa".

Lehenengo artikulua horretan bertan, bosgarren apartatuan, berariaz aipatzen da, berriz ere, gizartearen eraldatzeko hezkuntza (GEH), honako hau dioenean: "Lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politika publikoak hauek sustatzen ditu, besteak beste: gizartearen eraldatzeko hezkuntza, garapen jasangarrirako politiken koherentzia, ezagutzaren sorrera eta komunikazioa; horien bidez, bizitzaren jasangarritasunean, justizia globalean eta herrien arteko bizikidetzaren eragina izango duten balioen, jarreraren eta jardunbideen aldaketa bultzatu nahi da".

Lankidetzaren horren ezaugarrien artean, hirugarren artikuluan, "Epe luzerako konpromisoa hartzea eta Hegoaldeko biztanleei bereziki eragiten dieten txirotze, desparekotasun eta bazterketa-arrazoien egiturazko eraldaketa bilatzea, eta, ondorioz, Euskadin eta maila globalean ere aldaketak sustatzea"; "ikuspegi hauen bidez garatzea: giza eskubideak, feminista, lokal-globala, ekosoziala, lurralde mailakoa eta garapen jasangarrirako politiken koherentzia" bilatuz.

Laugarren artikuluan, helburuen artean, “Bereziki Hegoaldeko gizataldeetan txirotasuna eta bazterkeria eragiten dituzten egiturazko arrazoiak eraldatzeko ekarpena egitea eta giza garapena eta jasangarritasuna sustatzea...” helburuaz gain, honako borondate hauek ezartzen dira berariaz: “Elkartasunaren balioak sustatzea eta euskal gizartearen eta bere erakundeen mobilizazioa bultzatzea, aipatutako helburuak betetzeko prozesuan herritarren protagonismoa indartzeko; besteak beste, gizartea eraldatzeko hezkuntzako prozesuen bidez” eta “Gizarte zibil antolatua entitateak –bai Euskadikoak, bai Hegoaldeko herrialde eta lurraldeetakoak– indartzea eta haiei laguntzea, elkarte-sarea sustatuz gizarte demokratiko, inklusibo, horizontal eta eraldatzaileen sinbolo gisa.”

Era berean, bosgarren artikuluan jasotako printzipioen artean hau nabarmendu behar da: “lankidetzarako eta elkartasunerako euskal politikaren eraginkortasun, efizientzia eta irismen handiagoa erdiesteko, hauexek lortu behar dira: politika horretara bideratzen diren funts publikoak nahikoak, jarraituak eta aurreikusteko modukoak izatea; prozedurak bizkorak eta zentzuzkoak izatea, lankidetzan kide diren herrialdeetako eta lurraldeetako errealitateetara eta esku hartzen duten eragileen izaerara egokituta; jarduerak eraldaketaren emaitzen irismena, jasangarritasuna eta lorpenak iraunkorak izan daitezen lehenestea”

Halaber, Lege horretan jasotako konpromisoa: “Izapide burokratikoak eta laguntzen eta dirulaguntzen prozedurak sinplifikatzeko eta arintzeko prozesuetan aurrera egitea, jarduketak gauzatzen diren lurralde eta herrialdeetako errealitateetara egokitzeko” (7. artikulua).

Bestalde, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Lege berriak honako hau dio 14.4 artikuluan: “Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen lankidetzaren eta elkartasun-jardueren zeharkakotasunez txertatu beharko dituzte klima-aldaketa eta bidezko energia-trantsizioa, ikuspegi ekosozialaz gain, ingurumen-erronka globalak kontuan hartuta, horien inpaktuak betez ere planetako lurralde pobretuei eragiten badie”

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak ESKUTIK esparru dokumentua dauka lankidetzaren eta elkartasuneko politika publikorako. Dokumentu horren helburua da jardun esparru garbia ezartzea, 2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan ezarri diren nazioarteko egungo erronkei eta esparruei egokitua, eta esparru horri erantzea lankidetzarako foru politika partaidetu, partekatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak.

Horiek horrela, goian aipatutako lankidetzari buruzko lege berria jasotako arau esparruarekin bat etorritik, dagozkion egokitzapenak eta aldaketak sartu dira araudi honetan.

1. artikulua. Xedea eta helburua

Goian aipatutako lankidetzari buruzko lege berria jasotako arau esparruan, deialdiaren xedea dirulaguntzak ematea da, norgehiagoka bidez. Dirulaguntza horien helburua da elkarte sarea indartzen laguntzea eta genero ikuspegiaren bidez gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuak babestea 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean, Vitoria-Gasteizen garatutakoak izan ezik. Genero ikuspegia duten gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuek eta Eskutik 2022-2025 esparru dokumentuan lehenetsitako ikuspegiaren batzuei erantzuten dieten ekimenek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Pentsamendu kritikoa sortzen duen hezkuntza, gizarteari, bizitzari eta inguruneari dagokienez pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituen, bizi diren gizartea eraldatu nahi duen herritartasun globala eratuz. Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren kontzeptio hori da (H) ABIAN 2030 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategian jaso dena, zeina Arabako Foru Aldundiak sinatu baitu.

2. artikulua. Aurrekontu baliabideak, zenbatekoa eta muga

Gastu hori babesten duen aurrekontu partida Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako 25301. G/232252/48100265 aurrekontu-proiektukoa da. Partida horrek 145.000,00 euroko kreditua izango du eta, beraz, dirulaguntzak emango dira baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago dirulaguntzaren ebazpena ematen den unean.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 80 finantzatu du gehienez, eta erakunde eskatzaileari dagokio ziurtatzea gainerako ehuneko 20a baduela.

Erakunde eskatzaileak ekarpena egin ahal izango du, bai boluntarioen balorizazioen bidez, bai funts propioen, beste erakunde pribatu edo publiko batzuetatik datozen funtsen eta/edo jarduerak sortutako diru sarreren bidez, betiere 4. C artikuluan diruz laguntzeko moduko gastu gisa adierazitako partidetak ekarpen ekonomikoak baliatuz eta artikulua horretan ezarritako mugak kontuan hartuz.

Langile boluntarioen balorizazioak erakunde eskatzailearen ekarpenaren justifikaziorako baino ez dira kontuan hartuko, eta inolaz ere ezin izango zaizkio egotzi Arabako Foru Aldundiari, ez eta finantzatzen laguntzen duten beste erakunde publiko zein pribatuei ere.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du inola ere gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta proiekturako diruz lagun daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 80 ere; erakunde bakoitzeko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 13.000,00 eurokoa izango da, eta erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu ahal izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko 800,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Deialdiak onartu ahal izango du Arabako Foru Aldunditik bertatik edo estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk jasotzea, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua baino handiagoa ez bada.

Diruz lagun daitekeen aurrekontua doitzeko, hala badagokio, proiektuaren kostua beste dirulaguntza eta/edo baliabide publiko edo pribatu batzuetako funtsekin batera finantzatzeko eskatu duen erakundeak ebazpen horren berri eman beharko dio Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari, eta jakinarazpen horrekin batera, dirulaguntza eman edo ukatu izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

3. artikulua. Elkarre eta/edo erakunde onuradunak eta baztertuak. Betebeharrak

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan ahalko dira egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten irabazteko xederik gabeko fundazio eta elkarteak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean legez eraturata eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Orokorrean edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan erregistraturata daudenak.

2. Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorren 3. artikuluan baztertutakoez gain, honako hauek ere baztertuta geratzen dira:

a. Zuzenean nahiz talde bati lotutako edo talde bereko erakunde bitartez Berdintasun, Euskera eta Gobernantza Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dituzten irabazteko xederik gabeko elkarteak eta erakundeak, baldin eta haien helburua dirulaguntzaren xedearekin bat badator.

3. Arabako Lurralde Historikoan bi gizarte eraldaketarako hezkuntza ekintza gutxienez egin direla egiaztatu behar da, azken hiru urteetako batean Euskal Administrazio Publikoren batek finantzatuak.

4. Deialditik kanpo geratuko dira hegoaldeari eragiten dioten arazoak nagusiki lantzen ez dituzten proiektuak dituzten erakundeak.

4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen proiektuak eta gastuak. Proiektuen betekizunak

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak interesgarriztat jotzen dituen eta publiko orokorrari irekita dauden proiektu diruz lagunduak LAIA - Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren eta/edo Arabako Foru Aldundiaren beste partaidetza plataforma batzuen (Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza, giza eskubideen sustapenaren esparruko ekintzak etab.) urteko programazioaren parte izango dira. Horretarako, deialdia ebatzi eta ebazpena jakinarazi ondoren, diruz lagundutako proiektuei buruzko informazioa eskatuko zaie horien erakunde titularrei.

Zenbait erakunde (ikastetxeak, elkarteak, udalak, kuadrillak, etab.) batera planifikatu eta/edo lankidetzan jardun dezaketen proiektuen kasuan, proiektuaren gauzatzean parte hartzeko konpromiso idazki bat aurkeztu beharko da (eranskineko ereduak).

A) Diruz lagun daitezkeen programak.

Goian aipatutako Lankidetzari buruzko Lege berrian jasotako arau esparruan, genero ikuspegia duten gizarte eraldaketarako hezkuntza proiektuek eta Eskutik 2022-2025 esparru dokumentuan lehenetsitako ikuspegietako batzuei erantzuten dieten ekimenek jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Pentsamendu kritikoa sortzen duen hezkuntza, gizarteari, bizitzari eta inguruneari dagokienez pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituen, bizi diren gizartea eraldatu nahi duen herritartasun globala eratuz. Gizarte eraldaketarako hezkuntzaren kontzeptzio hori da (H) ABIAN 2030 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategian jaso dena, zeina Arabako Foru Aldundiak sinatu baitu.

B) Diruz lagundu ezin diren proiektuak.

Hona dirulaguntza horietaz baliatu ezin daitezkeenak:

1. Vitoria-Gasteizko udalerrian garatutako proiektuak edo jarduerak.

2. Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorren 1. artikulua arabera, genero ikuspegia justifikazioaren atalean sartzen ez duten proiektuak (II. eranskinaren 1. puntua). Izan ere, bertan, gutxienez, emakumeen eta gizonen* beharrian eta egoera espezifikoen azterketa berezia jasotzen da, bai eta proiektu horrek berdintasunaren aurrerabideari egiten dion ekarpena ere.

* Deialdi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz egiten diren aipamen guztietan kontuan hartu behar da, halaber, ez-binarioak diren pertsonen posizioa, ez baitute beren burua ez emakume ez gizon gisa identifikatzen. Termino hori erabiltzen jarraitzen da, deialdi hau babesten duen lege eta programa esparruarekiko koherentziari eusteko.

3. Hegoaldeari eragiten dioten arazoak nagusiki lantzen ez dituzten proiektuak.

C) Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zailantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, merkatuko balioa gainditzen ez dutenak eta 2025ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitartean egiten direnak.

2. Arabako Foru Aldundiari egotzitako gastuei dagokienez, dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko, diruz lagungarriak izango dira honako hauek:

a) Materialaren gastuak:

– Material suntsikorra, proiektuko jarduerak egiteko beharrezkoa dena.
– Sentsibilizazio materiala, 400,00 euro gehienez (elastikoak, txapak, poltsak, egutegiak, olanak etab.).

b) Bidaia gastuak. Joan-etorrietako gastuei dagokienez, ahal dela, garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar bada, kilometro bakoitzeko 0,29 euroko muga ezarri da.

c) Hitzaldiak, lantegiak, ponentziak, dinamizazioak, bakarrizketak, antzezpenak, musika emanaldiak eta/edo antzeko ekimenak egiten dituzten pertsonen dieta eta egonaldien gastuak.

Bazkari edo afarien dietaren gehieneko zenbatekoa 18,00 eurokoa izango da lanegunetan, eta 21,00 eurokoa larunbat, igande eta jaiegunetan (zergak barne).

d) Kontratazio gastuak (profesionalak, soldatapeko langileak eta beste batzuk –enpresak, elkarteak–, proiektua zuzenean gauzatzeko):

Kontratazio baten gastuak dirulaguntzarako onesteko, ezinbestekoa da kontratatzen diren pertsonak edo entitateak aurkeztu den proiektuan jasotako jarduerak koordinatzen edo garatzen aritzea. Erakundearen koordinazio eta/edo administrazio gastuak ez dira sartuko kontratazio gastuetan.

Lantegiak, solasaldiak, ikastaroak edo antzeko ekimenak egiteko kontratazioen gastuetan, dirulaguntzarako gehienez 120,00 euro onartuko dira jarduera orduko (zergak eta gizarte Segurantzza Barne). Gehieneko zenbateko horretan sartuko da joan-etorriak, prestalanak, gauzatze eta ebaluazioa egiteko behar den denbora. Jarduera hori ezingo da 16 orduetik gorakoa izan.

Behin baino sarriagotan egiten bada lantegi, hitzaldi zein ikastaro berdina proiektua gauzatu beharreko aldiak, iraupen ordu bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko muga 90,00 euro izango da (zergak eta Gizarte Segurantzza barne).

Organo kudeatzaileak aurrean azaldutako dirulaguntza mugak betetzen diren egiatatu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak aurkezten duen proiektuaren aurrekontuan jarduerak zenbat ordu iraungo duen zehaztu beharko du, xehatuta, bai eta orduko zenbat diru eskatzen duen ere (zergak barne).

Era berean, bakarrizketei, antzerki eta musika emanaldiei, ikuskizunei, erakusketei eta antzeko beste ekintza batzuei dagokienez, kontratazioaren diruz lagun daitekeen gehieneko muga 900,00 euro izango da (zergak barne).

e) Publizitate gastuak, hau da, dibulgazio material txikiak (kartelak, liburuxkak, etab.) diseinatze, maketatze, editatzeko eta/edo inprimatzeko gastuak.

f) Argitalpenen gastuak (liburuak, eskuliburuak, dosierak, etab.). Halakotzat hartuko dira edukia prestatzera, diseinatzeraz, maketatzera eta editatzera bideratutakoak, inprimatzeari dagozkionak izan ezik.

g) Boluntarioen balorizazioa: Eskatzailearen ekarpena justifikatzeko bakarrik hartuko da kontuan; dirulaguntzarako gehienez 20,00 euro onartuko dira orduko.

h) Gastu orokorrak edo zeharkakoak. Proiektuaren zuzeneko kostuen gehienez ehuneko 10 lagundu ahal izango da diruz, justifikatu beharrik gabe. Hortik kanpo geratzen da langile boluntarioen balorizazioa.

Gastu orokorren barruan sartuko dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena ez duten elektrizitate, berogailu, ur, telefono, alokairu eta zerbitzu orokorren gastuak, egitura kostuei dagozkienak, eta abar. Kontzeptu horretan sartuko dira, halaber, erakundearen koordinazio eta/edo administrazio gastuak.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritakoa betetzeak entitate onuradunei eragiten dizkien gastuak.

j) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz lagundu ahalko da, baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

D) Diruz lagundu ezin diren gastuak.

Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

– Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.

– Otorduak, opariak, sariak edo antzeko beste batzuk.

– Argitalpenak inprimatzeko gastuak (liburuak, eskuliburuak, dosierrak eta abar).

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren ustez deialdi honen xederako behar beste laguntzen ez duten jarduerak badaude, baztertu egin ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

Era berean, baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia printzipioari erantzuten ez dioten gastuak jasotzen badira (deialdi hau arautzen duten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan jasotzen da printzipio hori), esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan kanpo utzi ahalko dira.

Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era arteko azpikontratazioa baimendu ahal izango da, betiere Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badira.

Horretarako, erakunde onuradunak azpikontratatu egiten duela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean hirugarrenekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Erakunde onuradunak lotutako pertsonekin edo erakundeekin hitzartu ahal izango du bete-arazpena, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea.

2. Dirulaguntza ematen duen organoaren alde aurreko baimena lortzea (II. eranskinean jasotako eskabide ereduaren arabera).

E) Proiektuen betekizunak.

* Proiektuak egiten 2025ean hasi beharko da, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera kontatu ahalko da proiektuaren hasiera data. Nolanahi ere, proiektuak ez du 2025eko abenduaren 1etik gorako iraupenik izango.

* Aurreikusitako ekintzak Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabe 2 udalerritan egin beharko dira gutxienez, eta kanpoan geratuko dira Vitoria-Gasteizko udalerrian garatzen diren ekintzak.

5. artikulua. Eskabideak eta gainerako dokumentuak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi honen seigarren artikuluan aipatzen diren agiriekin batera, hogeit egun baliiodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunek, pertsona juridikoak diren aldetik, aurkezpen telematikoa egin beharko dute nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez.

Erakunde interesdunak, egiten dituzten agiri bidalketa elektroniko guztietan, pertsona juridikoen bitarteko elektronikoren baten bidez identifikatu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Izapideak nahitaez linean egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute, edo erakunde eskatzailea ez bada behar bezala identifikatzen elektronikoki, eskabidea behar bezala egiteko eta era elektronikoan egiteko eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

Era berean, eskabide ereduak bete eta elektronikoki bidali beharko dira (horien edukia deialdi honi erantsi zaio, onets dadin). Eredu horiek Arabako Foru Aldundiaren webgunean ere eskura daitezke (<https://web.araba.eus/eu/berdintasun-lankidetzeta-eta-kulturartekotasuna>).

Eskabide horietan, zehazki I. eranskinean, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren benetakotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko da.

6. artikulua. Agiriak

1. Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, ordenatuta eta honela izendatuta:

- a) Erakundeak egoitza Araban edo Trebiñuko enklabean duela egiaztatzen duen agiria.
- b) Erakundearen indarreko estatutuak eta legez eratuta eta dagokion Elkarte eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak.
- c) BEZetik salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana; eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) hainbanaketa erregelari dagoen, portzentajearen justifikazioa.
- d) Eskaera orria, I. eranskinaren arabera.
- e) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.
- f) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen bat eskatu bada, haien egiaztariak edo ebazpena aurkeztu behar dira, eta zenbat diru eskatu den adierazi.
- g) Egoki bada, lankidetzaren konpromisoaren idazkia (II. eranskinean dagoen ereduaren arabera).
- h) Egoki bada, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (II. eranskinean dagoen ereduaren arabera).
- i) Hala badagokio, azpikontratazio baimen eskabidea (II. eranskinean jasotako ereduaren arabera).
- j) Hala badagokio, erakundeak Araban dituen boluntarioen aseguruak ordaindu izanaren egiaztariak, eta boluntarioak zenbat diren adierazi behar da.
- k) Hala badagokio, Arabako Lurralde Historikoan kontratatuta dauden langile teknikoaren egiaztariak: nominak, kontratuak...
- l) Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko enklabean azken hiru urteetan, euskal administrazio publikoren batekin finantzatuta, sentsibilizazio edo hezkuntzako jardueraren bat egin duela frogatzen duten agiriak. Jardueraren izenburua, data, lekua eta guztirako kostua adierazi behar dira. Gehienez hiru ekintza, II. eranskineko ereduaren arabera.

2. Erakunde onuradunek zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, eta soldatapeko langileak badituzte, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute Arabako Foru Aldundiak jadanik dituen edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez aurkezteko. Horrenbestez, administrazioak agiri horiek kontsultatu edo bil ditzake, salbu eta eskatzaileek berariaz ukatzen badute egiaztapen hori egiteko baimena. Kasu horretan, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

Halaber, aurretik edozein administrazio aurkeztutako agiririk ez zaie eskatuko interesdunei. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zein administrazio organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, eta instrukzio organoak bildu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago interesdunaren berariazko aurkakotasuna edo aplikatzekoa den lege bereziak haren berariazko baimena eskatzen badu.

Salbuespenez, baldin instrukzio organoak ezin baditu lortu aurreko apartatuetan adierazitako agiriak, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko dio.

4. Eskabidearekin batera nahiz frogagiritan bide elektronikoz ematen diren kopien balioa dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko izango da bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

5. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren agirietan akatsik izanez gero edo osorik bete gabe egonez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.

7. artikulua. Instrukzioa eta balioespen batzordea

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak izango du prozedura bideratzeko eskumena.

